

## Torturari buruzko 1999ko balantzea

## Iaz inkomunikazioaren erabilera areagotu eta 57 tortura kasu izan zirela diote AABek

Inkomunikazioak dakarren eskubide bortxaketak torturari bidea ematen diola diote

Aitziber Iartza / Donostia

Amnistiaren Aldeko Batzordeak iaz 57 euskal herritarrek torturak jasan izana salatu zutela gogoratu dute. Hauetatik 44 inkomunikazio egoeran egon zirela azaldu dute, eta komisarian igarotako epe horrek torturari bidea ematen diola gaineratu. Halaber, atxilotuei gero eta inkomunikazio epe luzeagoa ezartzen zaiela salatu dute. Hala, ekimen bat jarriko dute abian AABek, torturaren amaiera lortu bidean.

AINHOA BAGLIETTO abokatuak 1999an «atxilotuen oinarriko eskubideen murrizketa nabarmena» gertatu dela salatu zuen. 57 tortura salaketa izan direla eta hauetatik 44tan torturak atxilotuak inkomunikatuan gertatu direla azaldu, inkomunikazioa gogor gaitzetsi zuen. «1999an inkomunikazioa sistematikoki aplikatu da, nahiz eta legeak salbuespena dela esan». Gogoratu zuen epe horretan atxilotua «desagertua» dagoela eta ez familiak ez abokatuak ez duela haren berri.

Inkomunikazioaren barruan gertatzen diren salbuespenak iaz ere arau izan zirela salatu zuen. «Beste salbuespen bat da inkomunikazioa hiru egunetik bostera luzatzea. Iaz, ordea, ia kasu



Nekane Txapartegi (torturatu zutela salatu zuen), Ainhoa Bagliatto abokatuak eta Juan Mari Olano AABetako kidea.

guztietan bost egunekoak izan zen. Halaber, euren aurrean ere inkomunikatuta deklaratu beharra ezarri diete epailek atxilotu gehienei, konfiantzazko abokaturik gabe», azaldu zuen abokatuak.

Atxilotuentzat komisarian ez deklaratzeko eskubiderik ez dagoela ere salatu zuen, eta adibide bat jarri zuen. Nafarroan ofiziozko abokatu batek poliziei eskatu zion atxilotuari eskubideak poliki irakurtzeko, eta horrek poliziak aztoratu zituen eta abokatuak kanporatu eta deklarazioa eten zuten.

Entzutegi Nazionaleko

epaileen salaketei inolako jaramonik ez dietela egiten ere salatu zuen, eta inoiz ez dituztela hauek ikertu.

Honengatik guztiagatik, ondorio bat atera du Bagliattok: «Inkomunikazioa luzatuz tortura babesten dute sistematikoki».

Tortura bortitzenak Guardia Zibilak egin zituela eta salaketa gehienak Espainiako Poliziaren aurkakoak direla ere azaldu dute AABek.

**Torturaren aurkako inplikazioaren bila**

Juan Mari Olano AABetako

kideak erakunde eta gizarte eragileak torturaren aurka inplikatzeko ekimena martxan jartzeko asmoa dutela azaldu zuen. Oraindik ere modua erabat zehaztua ez dagoen arren, zortzi eskaera izanen ditu ardatz: lege anti-terrorista ezabatzea, Entzutegi Nazionala desagertzea, atxilotuak ezabatzea, atxilotuek bi forentseen bisita jasotzea, tortura salaketek benetan ikertzea, tortura bidezko inculpazioak baliogabetzea, komisarietan bideoa jartzea eta atxilotuak batzorde judicial batek jarraitzea.

puntu puntu

## Tortura mota erabilienak

Hona hemen AABek kalera-turiko txostenaren arabera atxilotuek jasan dituzten tortura ohikoena.

**Bortxaketa** • Atxilotueta-ko batek guardia zibilek bortxatu zutela salatu zuen. Azaldu zuenez, biluztu, hankak eta eskuak lotu eta bularrak eta titiak ukitu zizkieten. Guardia zibil batek behatzak baginan sartu zituen. Beste bi emakumek ere polizien eraso sexuala jasan zutela salatu zuten.

**Bortxaketa mehatxuak** • Bi lagun mehatxatu zituzten modu horretan, eta bat biluzik lau hanketara ibilarazi zuten, ipurditik makila bat sartuko ziotela esanez.

**Kolpeak** • Inkomunikatuta egondako 44 lagunek salatu zituzten kolpeak. Batez ere buruan jo omen zituzten, baina baita barrubiletan, aurpegian eta tripan ere.

**Mehatxuak** • 9 kasutan heriotza mehatxuak izan ziren, beste hiru kasutan senideen kontrako mehatxuak eta bost kasutan beste tortura motak aplikatzeko mehatxuak.

**'Boltsa'** • *Boltsa* izeneko tortura mota; boltsa bat buruan jartzea da, itolarria sortzeko. Sei kasutan erabili zuten polizi ezberdinek.

**Ariketa fisiko gogorak** • Bi kasutan atxilotuek ariketa fisiko gogorak egin behar izan zituzten.

**Exekuzio itxura** • Bi kasutan atxilotuak exekutatu zituztelako itxura egin zieten. Beste bitan, berriz, denbora luzez izan zituzten pistola buruan jarrita.

**Irainak** • Bederatzi pertsonak azaldu dute irainak eta etengabeak izan zirela atxilotuak egon zirela bitartean.

**Presio psikologikoak** • 16 atxilotuak salatu dute presio psikologiko handia jasan dutela euren buruaren aurka edo beste pertsonen aurka deklaratzeko.

**Loa galaraztea** • Lau atxilotuak komisarian egondako epean —normalean, bost egun— ez ziotela lo egiten utzi edo atsenik eman azaldu zuten.

## Tortura salaketak

## Lekukotasun garratzak

Nekane Txapartegik atzo prentsaurrekoan agertu zuen Guardia Zibilaren eskuetan jasandakoa, eta AABren txostenean beste hainbat lekukotasun ageri dira. Hona hemen testigantza batzuk:

**Nekane Txapartegi** • «Martxoan atxilotu ninduen Guardia Zibilak eta zuzenean Madrilera eraman ninduten. Bidean eskuak eta hankak lotuta eraman ninduten, eta *boltsa* egiten zidaten, ito arteraino. Bidean gelditu, autotik atera eta, pistola buruan jarri, hilko nindutela esan zidaten. Madrilera iristean, «hoberena orain hasten da», esan zidaten. Benetako basakeria han hasi zen. Era guztietako mehatxuak, kolpeak, boltsa... eta bortxatu ninduten. Sentitzen den inpotentzia izugarria da», azaldu zuen atzo txapartegik. Txostenean bildutako lekukotasunean ageri denez, guardia zibilek biluztu egin zuten, eta, eskuak eta hankak lotu ostean, bularrak eta ipurdia ukitzen zizkieten, eta batek atzamarrak baginatik sartu zituen.

**Garikoitz Mendirotz** • Noianen atxilotu zuen Espainiako Poliziak. Hasieratik kolpeak eta mehatxuak jasan zituela eta burua estalita eduki zutela adierazi zuen. *Boltsa* izenaz ezaguna den tortura ere aplikatu zituen. Beste galdeketa batean, lau hanketan ibiltzera behartu zuten, ipurditik makila bat sartuko ziotela esanez. Armario moduko batean ere sartu zuten, eta, barruan zegoela, armarioa josten zuten. Toaila busti bat jarri zioten gasolina zuela eta su emango ziotela esanez.

**Arkaitz Saez** • Espainiako Poliziak atxilotu zuen, atxilotuak nahikoa bortitzean. Komisarian hilko zutela esan zioten hainbatetan. Polizia batek pistola buruan jarri zion eta ahoan ere sartu zion. Elektrodoak aplikatuko zizkiotela esanez ere mehatxatu zuten, aparailu bat erakusten zioten bitartean. Galdeketa batean biluztu, eta gorputz osoan jotzen hasi zitzaizkion, bereziki barrubiletan eta bizkarrean, oihal batekin estalitako burdina batekin.